

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

- **Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Gure proiektua aurrera eramateko, hainbat bazkide eta hornitzaile beharrezkoak dira. Lehenik eta behin, ikastola bera funtsezko bazkidea da, bere instalazioak erabiltzeko aukera ematen digulako eta jarduera baimentzen duelako. Horrez gain, Guraso Elkartea ere bazkide garrantzitsua da, familien eta ikasleen arteko komunikazioa errazten duelako. Bestalde, eskola kirola antolatzen duen elkartea lagungarria izan daiteke larunbatetako taberna modu koordinatuan antolatzeko. Hornitzaileei dagokienez, tokiko dendak (BM, Tahona, Super Adarra...) izango lirateke nagusiak, janaria eta edariak prezio murriztuan eskuratzeko aukera emango digutelako. Azkenik, udaleko gazteria edo hezkuntza saila ere laguntzaile moduan egon daiteke, baliabide edo diru-laguntzak eskainiz.

- **Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?**

Bazkide eta hornitzaile hauek ezinbestekoak dira proiektua modu egokian garatzeko. Ikastolak espazio seguruak eta egokiak eskaintzen dizkigu, eta horrek jardueraren bideragarritasuna bermatzen du. Guraso Elkartea familien konfiantza eta parte-hartzea sustatzen du, zerbitzua arrakastatsua izan dadin. Eskola kirolaren antolatzaileari esker, larunbatetako tabernak jende nahikoa izatea eta antolaketa egokia izatea lortzen da. Tokiko hornitzaileek kostuak murrizten laguntzen digute, irabazi handiagoak lortzeko aukera emanez. Azkenik, udalaren laguntzak proiektuari egonkortasuna eta laguntza soziala ematen dio.